

Kulturaren ekosistema egituratu dadin, oinarri bila

Kulturaren egoeraz eta etorkizunaz kezkatutik, otsailaren 27an egun beteko jardunaldian parte hartzeko deialdi zabala egin zuten zenbait eragilek, tartean, Ahotsenea, Eskena edo Kulturalive zeudela. Sentsibilitate eta arlo guztiak elkartzeaz gainera, nor bere jardunetik mintzatzea eta aurrera begira adostasunera heltzeko bidea bilatzea izan zuten helburu GEUK Topaketan.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

LITERATURA, musika, bertsojaritza, dantza, arte plastikoak nahiz beste hainbat arloko sortzaileak, antolatzaileak, bitartekariak, hezkuntzako eragileak, kazetariak eta hartzaileak batu ziren Durangoko San Agustinen, sentsibilitate ezberdineko 150 lagun guztira, gune irekia deritzon metodologian hausnarrean.

Kulturari bultzada emateko proposamen ugari atera zen gaika antolatutako taldeetan, “benetako ideia-erauntsia” izan zen hura, Gotzon Barandiaran batzorde eragileko kidearen arabera: “Batzuek oso egituratuta ekarri zituzten asmoak, eta soltean ere gauza mordoa mahairatu zen”. Besteak beste, euskal kulturaren kontseilua eratzeko aukera, edo cluster moduko zerbaiteira jotzea, herrietan kultur taldeak sortu eta haiek saretea, topiko guztien gaineratik elkar ezagutzeko espazioa eratu beharra, kulturaren ikusgarritasuna lortzeko beste herrialdeetako ereduak aztertzea eta interesgarrienak ekartzea...

Topaketa egin eta bost egunera, martxoak 4 zituela, Bilboko Zazpi Kaleetako La Bol-san batu zen batzorde eragilea (ohiko 12 lagunak eta beste sei, deialdia irekia zenez), topaketaren balorazioa egitearren. Ezer baino lehen, sortzaileengandik hasi eta hartzaileenganainoko abanikoan sumatzen den gogoia eta lanerako prestutasuna goraiatu zuten, eta sentsibilitate ugari batzeak dakarren aberastasuna. Topaketan atera ziren gaiez aparte, iritzi ugari bildu dute gerora, epostaz edo blogaren bidez, “topaketak oihartzun handia izan duen seinale”. Bi aste-
ren buruan, erauntsi hartan ateratako ideiak



Otsailaren 27an Durangoko jardunaldian ateratako zenbait ideia, post-it paperetan.

ordenatu, egituratu eta testu proposamen bakarrera ekartzeko ardura hartu zuten, eta horren arabera, maiatz-ekainerako, “Durangoko beroaldia hoztu baino lehen behintzat”, egun beteko beste deialdi zabalera deitzeko konpromisoa. “Ez da otsailaren 27koa bezain irekia izango”, diosku Barandiaranek, “eguna finkatzeaz batera, zeri buruz hitz egingo dugun ere zehaztuko da, nahiz eta asmo berriak proposatzeko aukera ere izango den, baina hortik ekintza plan bat ateratzea nahi genuke, zer eta nola egin behar dugun, eta proposamen jakin horiek zein egitura eduki beharko luketen”.

Durangon esandakoak zenbait txostenetan bildu dituzte blogean, (geuk14.wordpress.com), eta atetik heldu diren iritziak ere ikusgai daude. ■

